



2014ko abenduaren 17an, Irurako Ikastolako eraikin berriko Areto Nagusian eginiko Batzar Orokorraren agiria.

Iruran, Ikastolako Areto Nagusian arratsaldeko 19:00tan bigarren deialdian, Batzarrari hasiera eman zaio, 41 bazkide elkartu direlarik.

GAIAK:

1. Lehendakariaren agurra eta iazko aktaren onarpena.
2. 2013-2014 ikasturteko memoria eta balantze ekonomikoa.
3. Errektore Kontseiluko kide eta karguen onarpena.
4. Proiektu Pedagogikoaren aurkezpena eta garapena.
5. Eraikin berriaren aurreproiektua.
6. 2014-2015 ikasturteko aurrekontu ekonomikoen proposamena.
7. Besterik.

1.- 2012-2013 ikasturteko Batzar Orokorraren akta irakurri ondoren, aho batez onartua izan da.

2.- 2013-2014 IKASTURTEKO BALANTZE EKONOMIKOA

Lehendakariak 2013-2014 ikasturteko kontuak azaldu ditu eta aho batez onartu dira.

GASTUAK	943.670,08
SARRERAK	967.377,88
EMAITZA (Irabazia)	23.707,80 (% 2,45a)

3.- KONTSEILU ERREKTOREKO KIDE ETA KARGUEN ONESPENA

Lehendakariak, Kontseilu Errektorea uztea dagokien juntakideei eskerrak eman dizkie egindako lana eta inplikazioarengatik.

Uztea dagokienak:

- Naiara Blanco Iraola
- M. Francisca Muriel Martin
- Olatz Lizarra Saldías
- Emilio Merketegi Eizmendi
- Ivana Varona Simón
- Nagore Briones Aramendi

Aho batez izendatu diren kide berriak:

- Nerea Etxezarreta Ansa
- Leticia Aristi Oria
- M^a Aranzazu Arocena Goicoechea
- Goretti Aramburu Arrillaga
- Ainhitze Nieto Legarra
- M^a Teresa Galarraga Larrarte

Jarraian, juntakide berriak Batzar honetan berretsiak izan dira eta lehendakariak ongi etorria eman die.

2014-2015 ikasturteko Kontseilu Erretorea honela osatzen da:

<i>Lehendakaria</i>	Iratxe Ramirez Rojo
<i>Lehendakariordea</i>	Nerea Etxezarreta Ansa
<i>Idazkaria</i>	Arantxa Amondarain Aizpurua
<i>Diruzaina</i>	Xabier Saizar Ibarzabal
<i>Bokalak:</i>	Ainhoa Ugartemendia Roteta
	Iñigo Iñurrita Peñagarikano
	Jose Ignacio Balerdi Izaguirre
	Leticia Aristi Oria
	M ^a Teresa Galarraga Larrarte
	M ^o Aranzazu Arocena Goicoechea
	Goretti Aramburu Arrillaga
	Ainhitze Nieto Legarra
	Cecilia Maiza Peña

- Talde bateragileko ordezkaria: Iñigo Iñurrita
- Zuzendaria: Larraitz Agirrezabala
- Ikastolako idazkaria: Ana Amonarriz

Azaldu da, aurrerantzean, gela bakoitzeko ordezkariak gela horietako gurasoei informazioa helarazteko emaila erabiliko dutela.

4.- PROIEKTU PEDAGOGIKOAREN AURKEZPENA ETA GARAPENA

Zuzendariak azaldu du:

1.- KALITATEZKO HEZKUNTZA INTEGRALA ESKAINTZEN DUEN ESKOLA IZAN

- Eraitza akademiko onak.
- Konpetentzietan oinarritutako euskal kurrikuluma.
- Jakinminean oinarritutako irakaskuntza.
- Giza baloreetan oinarritutako irakaskuntza.

2.-EUSKAL ESKOLA IZAN

- Barne eta kanpo harremanetarako euskara izatea komunikazio hizkuntza.
- Euskal kultura indartu eta zabaldu.
- Herrian euskal kulturaren lankidetzan parte hartu.

3.- KOMUNIKAZIOA ETA BIZIKIDETZA BULTZATZEN DITUEN IKASTOLA gisa nabarmendu. KIDE GUZTIEN ARTEKO KOMUNIKAZIO ETA ELKARLANA

- Irakasleen arteko barneko koordinazioa ziurtatu.
- Ikasle, irakasle eta gurasoei informazioa era egokian zabaltzeko bide berriak asmatu.

4.-IKASTOLAREN ETORKIZUNA ZIURTATUKO DUEN ESKOLA IZAN

- Udaletxearekin gerorako biziraupena ziurtatu.
- Ikastolaren presentzia inguruko errealitatean ziurtatu.
- Irurako ume guztiak ikastolan matrikulatuak izatea.
- Anoetako ikastolarekin harremana finkatu eta sendotu.

□ PROIEKTUAK

■ BIZIKIDETZA

- ◆ Proiektu honen helburua, ikastola osatzen dugun guztion harremanak hobetzea da.

Gizarte trebezien lanketarekin jarraituko dugu (enpatia, ni mezuak, entzumen aktiboa, asertibitatea...) eta lasaitze txokoen (H.H), adostokien (LH 1-4) eta bitartekaritzaren (LH 5-6) erabilerarekin.

- ◆ Gelan disziplina/enpatia orekaren inguruan, irakasleok formakuntza saio batzuk egingo ditugu, "Educar en y para el conflicto" (Paco Cascon).
- ◆ Jokabide Desegokien eta Bizikidetzaren aurkako jokabideen kasuan hauek bideratzeko sortuta ditugun prozeduren erabilerarekin jarraituko dugu.

■ *IKT*

- ◆ Geletako blogak martxan jarriko ditugu eta web orritik sarbidea egongo da.
- ◆ Informatika ikasgaietan txertatuta egongo da eta hainbat gauza berri landuko ditugu: bloger, posta elektronikoa, informazio bilaketak, testu prozesatzaileak...
- ◆ Oharrak posta elektronikoz bidaltzearen erronkarekin jarraituko dugu.

■ **HIZKUNTZA PROIEKTUA TALDEA**

◆ IRURAKO IKASTOLAKO HIZKUNTZA PROIEKTUA / EUSKARAZ BIZI

Irurako Ikastolak, euskararen normalkuntzan eragile izanik, euskal kultura transmititu, garatu eta indartzeko konpromisoa du, Hizkuntza Proiektua dokumentuan adierazten den bezala.

◆ EUSKARAZ BIZI TALDEA → EUSKARAREN ALDEKO EKINTZAK → HELBURUA: EUSKARAREKIKO MOTIBAZIOAN ETA JARRERA BAIKORREAN ERAGITEA → FAMILIAREN PARTEHARTZEA EZINBESTEKOA

■ *AGENDA 21*

- ◆ Gaia: MUGIKORTASUNA ETA ENERGIA – Helburua: herrian, ikastola bidean...oinez, bizikletaz.. mugitzeko ohitura piztea, bide batez energia aurreztu eta ohitura osasuntsuak bultzatzea.
- ◆ Birziklatutako materialarekin egindako gabonetako apaingarriak jarriko ditugu herrian.
- ◆ Konpostaketa.
- ◆ Material bilketa kanpainak.

BERRIKUNTZA PROIEKTUAK

■ IKASTEKO KOOPERATU ETA KOOPERATZEN IKASI

- ◆ Ikasleen arteko elkarrekintza ahalik eta gehien aprobetxatzeko metodologia da.
- ◆ Helburuak: partaide guztiek eskola edukiak ikastea eta taldean lan egiten ikastea.
- ◆ Talde kohesioa indartzen da.
- ◆ Aurten ikastola osora zabaltzeaz gain, HPBko ikasleekin lanketa egin.

■ IKASTEKO IRAKURRI

- ◆ Ikasketetan arrakasta izateko irakurtzen denaz jabetzea ezinbestekoa da.
- ◆ Lanketa honen helburua ikasleari irakurtzen duena ulertzen erakustea da, beharrezkoak diren laguntza eta baliabideak eskainiz.
- ◆ Irakasleek, Irakurketa taldea osatu dute Heziketa berezia, LH 3,4,5 eta 6. mailetarako.

PROIEKTU PEDAGOGIKOAREN GARAPENERAKO OINARRIA ETA ETORKIZUNA

A) Metodologia eta pedagogia berrietara egokitzeko ahalegina

- Proiektuak
- Berrikuntza metodologikoak.
- Kurrikulumaren egokitzapenak (konpetentziak).
- Zerbitzuen eskaintza zabalagoa.

B) Ikastolaren izaera sendotzeko bidea

- Kooperatiba Integrala bihurtzeko erabakia.
- EHI elkarteko kide bat gehiago.
- Bailarako eta batez ere Anoetako Herri Ikastolari lotuta.

C) Azpiegitura propioak izateko ahalegin ekonomikoa

- Irurako Udalarekin akordio garrantzitsuak. (Ikastolaren hedapena eta bizi iraupena ziurtatzeko ezinbestekoak izango direnak)

LH-rako eraikina 2008. urtean.

Jangela + HH-rako eraikina 2016. urtean.

5.- ERAIKIN BERRIAREN AURREPROIEKTUA

Lehendakariak Eraikin berriaren aurreproiektua aurkeztu du.

2013. urtean Udalak ikastolak plazan hartuta dituen lokalak behar zituela jakinarazi zuen eta eraikin berria egiteko proposamena luzatu zuen.

Eraikin berria haur hezkuntza osorako izango litzateke: 2 urteko 2 gela, haur hezkuntza 1, 2 eta 3 eta jangela eta psikomotritate gela konpartituak. Planta bakarreko eraikina izango da.

Eraikin batzordea osatu eta Ikastolen Elkarteko Jose Comas dugu laguntzeko.

Beharrak aztertu ondoren, "pliego de condiciones" berak erredaktatu zuen eta aurreproiektua egiteko eskaera 3 arkitektoei luzatu zitzaion, Beb, Gurrutxaga eta Ager Iñarra.

Ager arkitektoak aurkeztutako lana gustatu zen gehien eraikin batzordean, beharrezko baldintzak ondo zehaztuta eta definitutako lana aurkeztu zuen, eraikinaren kokapena eta diseinu aldetik egokiena. Oiarzungo Haur Hezkuntzako eraikina berak diseinatu zuen. Aurreproiektua egiteko bakarrik kontratatu da.

Eraikin berriko plano eta irudiak azaldu dira.

Eraikin batzordean eraikina definitu eta Udaletxean aurreproiektua aurkeztu da.

Batzar kideak hainbat galdera eta ekarpenak egin dituzte, besteak beste:

Egungo eraikinari beste planta bat ematea. Aukera hori kontutan hartu zela esan da baina haur hezkuntzako gelak 0 kotan egon behar dutela azaldu da. Honek egungo eraikina berrantolatzea eskatzen zuen eta diru aldetik berdintsu ateratzen zela azaldu da.

Eraikinaren inguruan informazioa jasotzeko batzordera etortzeko gonbitea luzatu da.

Beste batzarkide batek jaiotza tasa jaitsi egin dela aipatu du. Hala ere, etxe berriak eraikitzen hasi direla eta ikasleak berriro ere izango direla komentatu da.

Udaletxeko ordezkaria den Gorka Muruak zera esan du: Ikastola berria egin ahal izateko Plan Orokorra aldatu egin behar dela. Prozesu horrek urtebeteko denbora eskatzen du. Denbora aurreratzeko Plan Berezi bat aztertzen ari direla azpimarratu du. Gaur egun Udalak 2 lokalen mantenua bere gain hartzen du eta hau gastuetan azaldu behar da.

Ikastolaren bizi iraupenerako ikasle guztiak eremu batean egotea hobeto ikusten dute. Bi esparru aztertzen ari dira teknikoa eta ekonomikoa, azken hau ez dela erraza izango inbertsio handia delako eta egoera ekonomikoa zaila. Udala jabetzen da aurrera atera ezin duen proiektu batean ez dela sartuko.

Lehendakariak finantzaketarako iturriak bilatu behar direla esan du. Ikastola, Udala eta arkitektoen lana goraiatu du.

Ikastola berria orain dauden umeentzako egiten bada etxe berriak egiten badira gela gehiago beharko direla esan du guraso batek.

Etxeak eraikitzen ez badira ume gehiago ez direla izango esan du beste guraso batek.

Arazo demografikoak alde batera utzita, umeak plazatik hona ekarri behar direla esan du beste guraso batek.

Ikastola, ikastola bezala proiektu honekin egongartu, garatu eta erantzunak emango dituela esan du lehendakariak. 2007. urtean egoera orain baino okerragoa zela eta aurrera ateratzeko gai izan garela azpimarratu du.

Beste guraso batek finantziarioari buruz bere kezka azaldu du. Jakinda honelako proiektu bat kuotekin ez dela ordaintzen eta ekintzak egin beharko direla, ze diru-laguntza izango diren galdetu du.

Inbertsiontako diru-laguntza izango dela esan da baina noiz jakin gabe. Egun 2014 urtekoa ateratzeaz dagoela baina hori eskatu ahal izateko proiektua bukatuta egon behar duela. Hurrengo deialdirako eskatu beharko litzateke.

6.- 2014-2015 IKASTURTEKO AURREKONTUAREN PROPOSAMENA

Iratxe Ramirez lehendakariak eta Iñigo Iñurrita juntakideak 2014-2015 ikasturteko aurrekontuaren proposamena azaldu dute eta aho batez onartua izan da.

GASTUAK	1.096.871,06
SARRERAK	1.096.871,06

■ Azaldu beharra dago, aurrekontu honetan maileguen kapitalaren itzulerak eta dagokien interesen ordainketak sartu direla eta horiek ordaintzeko jasotzen ditugun diru-laguntzak ere.

■ MAILEGUEN EGOERA 2013-2014 IKASTURTEA

Iñigok maileguen kuadroa azaldu du.

■ MAILEGUEN ORDAINKETAK 2013-2014 IKASTURTEAN 148.918,89 €

IRURAKO UDALA 74.966,60 €

E. JAURLARITZA 44.827,65 €

IKASTOLA 29.124,64 €

■ GUZTIRA ORDAINTZEKO FALTA DENA 450.862,43 €

Eraikin berria egiteko 2016. urtean mailegu berriak eskatu beharko dira. Aurretik ditugun maileguek berriro negoziatu beharko dira eta berriak gehitu. Maileguen ordainketak nola egingo diren azaltzeko hainbat bilera egingo dira.

Huteskundeak direla medio Udaletxean beste talde bat baldin badago finantzaketa nola geratuko litzakeen galdetu du beste guraso batek.

Udaletxeko ordezkariak zera erantzun du: Idazkariarekin hitz eginda gero eta negoziaketak aurrera ateratzen badira, finantzaketa legalki lotuta uzteko aukera badagoela esan du.

■ IKASTOLAKO FUNTZIONAMENDUAREN KUOTA

2012. urtean 3 urtetarako plana onartu zen, urteko 2 euroko igoera aplikatzea funtzionamenduaren kuotari.

Horrela egin da 2012, 2013 eta 2014 urtean. 2015 urtean KPI aplikatzea onartu zen baina oso gutxi delako ekonomia batzordeak urte honetan kuotaren igoerarik ez izatea batzar honetan proposatu du eta proposamena aho batez onartua izan da.

8.- GALDE ERREGUAK.

Batzakideen artean egindako ekarpenak:

■ Ikastola berriaren aurreproiektuarekin aurrera egiteko ez ohiko batzar batean erabakitzea guraso batek esan du.

■ Aurreproiektuarekin aurrera jarraitzen bada proiektu osoa azalduko dela lehendakariak esan du.

- Ikastolak Udalarekin harremana estua izatea bere laguntzarik gabe ezin dugulako ezer egin beste guraso batek esan du.
- Proiektua aurrera eramateko ibilbidea luzea dela eta Udalak erabakia hankak lurrean dituela hartuko duela Udaletxeko ordezkariak esan du.
- Lehendakariak zera esan du: Ikastola, herritik eta herrira sortutako zerbait izan nahi dela, guraso guztiena, denon arteko proiektua. Ingurua begiratuta hainbat herrialdetan, Araban, Errioxan egoera okerragoan daudela. Elkarlanarekin egoera txarretatik ateratzeko gaitasuna izan eta izango dugula azpimarratu du.
Ikastolen Elkartearen laguntza jasotzeko baldintza batzuk bete behar dira, bidegarritasun plana egin da.
- Plangintza bat adostuko da proiektua eta finantzaketa ez ohiko batzar betean aurkezteko eta erabakia hartzeko.
- Udaletxea eskua ematen ari da bidea aurrera jarraitzeko nahiz eta etorkizunak aldaketak ekarri.

Eta besterik gabe, lehendakariak bertaratutakoei eskerrak eman ondoren Batzarra iluntzeko 20:25etan bukatutzat eman da.